

noaua



Koloreetan bego

udajolas

2020
udaleku irekiak



IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

maiatzaren 1etik 15era (biak barne)

www.noaua.eus/bereziak/udajolas



noaua

Usurbilgo Udala

Noaua!k
Udajolas-erako
lan-poltsa osatzeko, zuzendaria eta
begiraleak behar ditu,
uztailean lan egiteko.

PROFILA:

2 hilabeteko esperientzia
Begirale titulua izatea / Zuzendari titulua
EGA edo baliokidea den agiria
Sexu delitua egiteagatik aurrekari
penalak ez dituela egiaztatzen
duen ziurtagiria.
Usurbildarrek lehenetasuna

Interesatuak:

Curriculum-ak ekarri edo bidali:
Noaua! Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Usurbil edo
elkarte@noaua.eus

Curriculum-a bidaltzeko azken eguna: maiatzak 10

noaua



Usurbilgo Udala



Albistea iruditan

Elikagaien postuekin itzuli da azoka

COVID-19-ak martxo hasieran etendako asteazkeneko azoka itzuli zen apirilaren 22an Askatasuna plazako estalpera. Ohi baino postu gutxiagorekin. Usurbilgo Udalak ohartarazi moduan, soilik elikagaiak saltzen dituztenek baitute baimendua kalean saltzea. Ondoko irudia, azoka aipatu enparantzako estalpera itzuli zen eguneko duzue. Elikagaiak saltzen dituzten lau postuetatik hiru itzuli ziren. Herri-tarrak tantaka produktuak erostera hurbildu ziren.



Herri-tarrak tantaka produktuak erostera hurbildu ziren.

Laburrean

Etenda daude odol emateak

Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak bi hilean behin finkaturiko hitzordua izatez datorren maiatzaren 4an egokituko zen. Bizi dugun egoera tarteko ordea, etenda daude odol emateak. Aurrerago zehaztuko dute hitzordu berria.

Andatza Eguna, bertan behera

Maiatzaren 3arekin batera ospatzekoa zen Andatza Eguna. Iaz, Zirimarak girotu zuen igoera, trikiti doinuek alaituriko hamaiketako ederrarekin. Konfinamendu egoera honetan, ez da ospakizunik izango aurten.

Oharra berrogeialdian daudenentzat

Usurbilgo Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Udalari horren berri emateak, 669 87 40 22 telefono zenbakira deituta.

noaúa

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaúa.eus ||| www.noaúa.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua.

Disinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaúa.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,

Iban Maritxalar.

Tirada: 2.930 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaúa.eus



Euskal presoak

Usurbilgo Udala

Euskal Herra!



Gipuzkoako Foru Aldundia



Maddi Aburruza

Ikasturte erdia konfinaturik

Unibertsitateko azken urtea, bigarren lauhilekoaren ia hasiera, birusa eta horrek ekarri duen guztia; etxean egon eta klaseak bertualki jasotzea.

Nik, egunero Leioara joaten jarraitu beharko nuke, bidalitako lanak egin eta horrez gain GRALa (Gradu Amaierako Lana). Gurean, praktikak egitea ez da derrigorrezkoa, eta eginda ere, arlo bakarrik kentzen duzu gainetik. Nire ikaskide batzuk, orain ari ziren praktiketan, horrekin arlo bat kendu ahal izateko, eta orain, ez dakite zer pasako den horrekin.

Orain, irakasle eta ikasle guztiok geure etxeetatik ari gara lanean, eta horrela jarraitu beharko dugu kurtso amaierara arte. Hasieran, klaseak online jasotze horrek apur bat beldurtzen gintuen; zerbait berria zen, ez genekien nola funtzionatuko zuen.

Baina, egia esan, nahiz eta arraroa izan, nahiko ondo ari gara moldatzen eta nahiko ondo funtzionatzen duela esango genuke. Irakasleek klase presentzialetan bezala, eurek prestaturiko power pointak igotzen dituzte gela bertualera eta azaldu beharrekoa azaltzen dute. Ez da erraza arreta mantentzea, eta irakasleentzako ere ez da erraza pantaila bati begira hitz egiten egotea. Denok ari gara esfortzua egiten.

Bestalde, konfinatuta egoteak eta klase presentzialetara joan behar ez izateak, lan gehiago bidaltzeko gogoia sartu die irakasleei, edo hori da gure pertzepzioa behintzat. Lehen aipatu moduan, unibertsitateko lanez gain, GRALa ere hor dugu, eta nahiz eta ematen duen denerako denbora daukagula, ez da horrela. Iruditzen zaigu, ez dutela ulertzen saturatuta gabiltzala.

Ezin ditugu azterketak aipatu gabe utzi. Oraindik inork

ez daki ezer seguru, baina, fakultate bakoitzak eta irakasle bakoitzak bere moduan egingo du, seguruenik. Batzuk, azterketa kendu eta lanekin ebaluatuko dute, besteak azterketak modu bertualean test bidez, besteak agian ahozko azterketa... Hori dena oraindik ikusteke dago, baina ikasle guztioi (azterketak eduki beharko genituzkeenoi) arduratzen digun gaia da.

Nire bi lagunaren egoera ezberdina da. Maddik Deustuko Unibertsitatean ikasten du eta orain derrigorrezko praktikak egiten egon behar luke. Otsaila erdialdean hasi zen Donostiako kasinon. Hilabete ere ez zebilen praktiketan eta, oraingoz, suspenditutzat eman dizkie. Esaten du, orain denbora gehiago duela GRALa egiteko, kasinora joan behar ez delako. Baina, pena ematen dio praktikak suspenditu izanak. Izan ere, berarentzako, praktikak gradu bateko faktore ga-

rantzitsuenetariko bat dira, bertan ikasten baituzu gehien. Orain, praktiken orde lan bat egin beharko dutela esan die, baina bere esanetan, lan batek ezin ditu praktika batzuk ordezkatu.

Garazi, aldiz, azarotik New Yorken zegoen unibertsitateko ikerketa proiektuan. Bere GRALa, ezberdina da; hango unibertsitatara joan behar zuen ikerketan lan egitera, horrekin Gradu Amaierako Lana burutzeko. Hasieran, han geratu eta etxetik egin zezakeena egiten zuen, baina hau luzerako zihoala ikusita, Mondragon Unibertsitateak hona itzultzeko gomendioa egin zion. Uztaila hasieran itzuli beharko luke, baina orain martxotik hemen dagoela, proiektua aldatu diotenez denbora laburragoan egin beharko du. Bere esperientzia profesionala zein pertsonala guztiz kendu diotela sentitzen du.

Imanol Ubeda

Luis Aranalde

Aritz Gorriti

Maddi Aburruza

123.000 errenta aitorten aurkeztu dira, iaz baino %24,5 gehiago

2019ko errenta aitortzeko kanpainari honi lotutako lehen hamabostaldiko datuak plazaratu ditu Foru Aldundiak. Balantze positiboa egin du. "Krisia hasi zenetik esan dugu Aldundiaren helburua zergadunei malgutasuna eskaini eta gure esku dauden kontuetan likidezia ematea dela; Errenta kanpainaren itzulketen bidez likidezia hori ematen diegu". Honatx kanpainaren lehen 15 egunak zenbakitan:

■ 123.000 errenta aitorten aurkeztuak, iaz baino %24,5 gehiago.

■ 21.000 autolikidazio pro-

posamen onartuak, iaz baino %23 gehiago.

■ 6 egunetan 10.000 aitorten aurkeztu dira telematikoki, iaz 3.000 epe berean.

■ BAK kodea telematikoki eskuratzeko 4.730 eskaera izan dira eta ordezkapen berezia egiteko 535 eskaera.

■ 70 milioi eurotik gora itzuli ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

■ Gipuzkoarrei 289 milioi euro itzultzea aurreikusten du Foru Aldundiak.

Datak

■ Autolikidazio proposamenak

onartzeko aukera uztaillaren 29ra arte. Atari honetan egin daitezke kontsultak: gipuzkoa.eus/ogasuna/proposamena

■ Internet bidezko aitortpena aurkezteko aukera uztaillaren 29ra arte, zergabidea.gipuzkoa.eus atariaren bidez.

■ Errenta mekanizatua edo aurrez aurrekoa: data zehazteke.

Informazio gehiago:

943 113 000 (8:00-20:00 artean autolikidazio proposamenak onartzeko, aldaketekin 8:00-15:00 artean).

labur.eus/ogasuna

Errenta euskaraz aitortzeko deia

Usurbilen, iaz, 950 herritarrek aitortu zuten errenta euskaraz. 2.281ek erdaraz. Ogasunarekin egin beharreko tramitazioa euskaraz bideratzeko deia egin dute Udalak eta UEMak. "Batetik, datuetan islatu dadin udalerrri euskaldunetan herritarrak euskaraz bizi direla. Bestetik, administrazioa euskalduntzeko bidean eragiten jarraitzeko". Egungo 78.000 zergadunetatik euskara hautatzen duten 100.000 izatera igarotzeko erronka du Foru Aldundiak datozen lau urteotan.

“Interneten ipini ditugun jolasak adin ezberdineko gazteentzat eginak daude”

Konfinamendu garaia arintzeko, Mendu Astialdi Eskolakoek jolas ezberdinekin eginiko ikusentzunezko laburrak partekatu dituzte sare sozialetan. Lau usurbildar topatu ditugu ekimen honen atzetan.

NOAUA! Mendu Astialdi Eskolan hainbat usurbildar batu zarete. Noiz eta zein helbururekin elkartu zineten?

Manex Torrealdai. Eskola honen hasiera amaiera batetik etorri zen. Beste eskola batean geunden 20 bat lagun kalera tuak izan ondoren, gure indar eta esperientzia ardatz hartuta eskola bat sortzen hasi ginen. Helburua bertan geneuzkan errealitate eta esperientzia ezberdinekin astialdi munduko esparru ezberdinetan laguntza eskaintzea zen.

Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen zerbitzuak?

Eskola bezala, eboluzio bat izan du taldeak. Hasiera batean, begirale eta zuzendari ikastaroak eskaintzen zentratu ginen buru belarri. Zailtasunak zailtasun, paraleloki astialdi taldeei ikastaro ezberdinak ematera jarri ginen, izan jolasen eraldaketen inguruan, izan elikagaien manipulazio ikastaroan; sektorearen beharretara moldatuta. Aurretik esan bezala, esperientzia asko eta ezberdineko jendea dago taldean eta oso ondo ezagutzen ditugu hezkuntza



“Betiko jolas bat hartu eta buelta bat eman diogu. Askotan detaile txiki batek jolasa guztiz alda baitezake”. Youtuben Mendu Astialdi Eskola kanalean eta Instagramen @menduastialdieskola helbidean aurkituko dituzue jolas guztiak.

MANEX TORREALDAI

“Interneten, erdarazko jolasen eskaintza zabala da. Guk eskaintza hori euskaraz sortu nahi dugu”

ez formalaren beharrak. Behar horien identifikazioak eman gaitu orain gabiltzan jardunera: azken bi urte hauetan, Interneten euskaraz dauden jolas tutorialen beharra lantzen gabiltza. Erdaraz azaldutako jolasen eskaintza zabala da eta hezkuntza munduan gabiltzanok sarritan ikusi behar izan ditugu bideo horiek. Guk eskaintza hori euskaraz sortu

nahi dugu, baina horretaz gain egiten ditugun jolasak ere gure moldaketekin grabatzea gusztatzen zaigu. Hau da, betiko jolas bat hartu eta buelta bat eman diogu. Askotan detaile txiki batek jolasa guztiz alda baitezake.

Haurrei, gazteei, familia osoari... Nori zuzendua dago zuen eskaintza?

Denetarik dugu. Konfinamendu garai honetan igotzen gabiltzan jolasak adin ezberdinei begira daude zuzenduta eta jolas guztiak etxean ditugun edo egin ditzakegun materialak erabiliz daude pentsatuak. Bestetan, jolas oso ezagun bat hartu eta etxean guk egiteko alternatiba bat eskaini dugu.

“Lau usurbildar gaude bertan lanean”

NOAUA! Arestian aipatu bezala, usurbildar bat baino gehiago dago Mendu Astialdi Eskolan. Dena den, Tolosaldean aritu zarete lanean orain arte, ezta?

Manex Torrealdai. Bai. Hasieran eremu batera mugatu

behar genuen, eta Tolosak astialdian duen indarra ikusirik han zentratu ginen. Inguruko herrietan ere ibili gara, baina elkartzeko lekua Tolosa dugu. Orain Internet-era zabaltze honekin Euskal Herri osoarentzat eskaintza

zabaldu nahi dugu nahiz eta zabalpena ez den erraza gurea bezalako boluntario talde batentzat.

Bertan, momentu hauetan, lau usurbildar gaude lanean: Miren Izeta, Beñat Arruti, Jon Imanol Etxabe eta ni.

“Jolasa ahal den laburren azaltzen saiatzen gara”

NOAUA! Gazteak ezin lagunekin batu. Horregatik hasi zarete jolas hauek sare sozialetan zabaltzen?

Manex Torrealdai. Bai. Orain arte lasaitasunez genbiltzan lanean, presa gabe bideoak grabatu eta lantzen, azkenean bakoitzak bere lana du eta hau boluntarioki egiten dugun zerbait baita. Baina konfinamendu egoera hau ikusita gure artean koordinatu eta bideo xumeagoak, agian, baina maiztasun gehiagorekin igotzea erabaki genuen, eta horretan gabiltza.

14 bat bideo topatu ditugu zuen Youtube kanalean. Tutorial modukoak dira, ezta?

Hori da, gaur egungo gizartean badirudi minutu batetik pasatzen den bideo bat luzea dela eta horregatik saiatzen gara ahal den laburren jolasa azaltzen. Gero beti testu gehigarri bat jartzen diogu jolasa gehiago azalduz edo aldaera ezberdinak proposatuz. Ahal dugun ondoen esplikatzen saiatzen gara, baina inork zalantzarik badu sare sozialetan Mendu Astialdi Eskola jarri eta edozein galdera, zalantza, proposamen erantzuteko prest gaude.

Guraso askoren beldurra hau da: euren haurrak ordu asko igarotzen dituzte online jokoetan, eskuko telefonoari pegatuta.

Taldeko gehienok egiten dugu haurrekin lan eta errealitate hori oso gertutik bizi dugu. Ez da erraza gaur egun horren aurka egiten, familia ugari, konfinamendu egoera kontuan izan gabe, ez dute elkarrekin jolasteko astirik hartzen, gure proposamenerako beharrezkoa da hori: Denbora hartu, familian eseri eta jolastu, pantailak alde batera utzia.

Lanean berriz, obra publikoetan

Espainiako Gobernuak hainbat sektoreetan ezarritako etenaldiaren ostean, martxan dira berriz hainbat obra publiko gure herrian. Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez, Zumarte Musika Eskolaren Kale Nagusiko egoitza handitu eta birgaitzeko lanak martxan dira berriz. Aginagako erriberan eta Zubietako Learritza ibilbidean abian da beste obra bana.

Kalezar, hainbat obren eremua

Kalezarren, Espainiako Gobernuak obrak geraraztea erabaki zuenean, Murkaiku eta Pikaola arteko bidegorriko lanak amaitzear zituzten. “Lanegun bat baino ez zitzaion falta”, Usurbilgo Udaletik zehaztu dutenez. Sektore hau lanera itzultzea baimendu denean, “amaitu dute dagoeneko”. Antzeko egoeran da Kalezarretik mugitu gabe, etorkizunean auzotarren udal ekipamendua eta Emakumeen Etxearen egoitza nagusia izango den Pelaiouenea eraikina ere. “Pelaiouenearen estalkiaren obrak apirilaren 1ean hastekoak ziren. Orduan



Murkaiku eta Pikaola arteko bidegorriko lanak amaitu dituzte.

UDALA

“Puntapax kaletik Haur Eskolara igotzeko nahiz Pikaola aldetik Puntapax aldera jaisteko pasabidea hilabetez itxita egongo da obregatik”

ezin zuten egin, baina aste honetan hasi dira lanean”, jakinarazi du Udalak.

Gogoan izan bestalde, Ugartondon eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxebizitzien

eremuko bidean, konfinamendu aurreko asteetan semaforo batek kudeatzen zuen ibilgailuen joan etorria. Puntapax kaletik Haur Eskolara igotzeko nahiz Pikaola aldetik Puntapax aldera jaisteko bidez ari gara. Udalak ohartarazi duenez, aipatu pasabide hau hilabetez itxita egongo da obregatik.

Bando bidez jakinaraziko dute Ondorioz, horrek ibilgailuen joan etorria aldaraziko du. “Troiaiko aldatatik eta Belmon-

te kaletik bideratuko da trafikoa, bi norabideetan. Bandoa jarriko dute datozen egunetan auzoko etxebizitzetan, auzotarrak jakinaren gainean egon daitezen”.

Indarkeria matxistaren aurkako kartelak

Udal-brigadak “Indarkeria matxistarik gabeko Usurbil” izenburua daramaten kartelak jarri ditu egunotan etxe atarrietan, mezu argi batekin, “ez zaude bakarrik”; eta arreta edo laguntza zerbitzu ezberdinen telefono zenbakiokin:

■ Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimen arreta, SA-TEVI: 900 840 111 (24 ordu)

■ Usurbilgo Udalaren Berdintasun eta Gizarte Zerbitzuak: 943 377 110 (goizez).

■ Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua, Gipuzkoako Foru Aldundia: 943 22 44 11 (7:00-21:00).

■ SOS Deiak: 112.

■ Udaltzaingoa: 943 36 11 12.

Urteko “lehendabiziko izokina” sartu da Orian

Urteko “lehendabiziko” izokina sartu zen Oria ibaian apirilaren 20an, aipatu espeziea berreskuratzeko Gipuzkoako Foru Aldundia azken hamarkadotan bideratzen ari den lanketaren baitan. 6,7 kiloko izokin emea hain zuzen ere.

Inork ez du arrantzatu, izokinen arrantza debekatua baitago Gipuzkoan. 27 urte daramatza Gipuzkoako Foru Aldundiak espezie hau berreskuratzeko lanetan. Aipatu izokina, neurtu, pisatu eta izokina markatzeko baliatu



1995. urtean abiarazi zituen Foru Aldundiak izokinak berreskuratzeko lanak Usurbil zeharkatzen duen erriean.

zuen Foru Aldundiak. Gero uretara itzuli zuten.

Habitata hobetzen

1993. urtean abiarazi zituen

Foru Aldundiak izokinak berreskuratzeko lanak Urumean eta 1995ean Usurbil zeharkatzen duen erriean. Orian, Orbel-di parean 58 izokin askatu di-

tuzte urtero batz beste azken urteotan; Urumean, Hernaniko Elorribi inguruan, 181 izokin urtero batz beste azken hamarkadan. Iaz, 10.550 kume aske utzi zituzten Urumean, 8.782 Orian.

1940. urte aldera desagertu zen izokina Orian, baita Urumean ere. XIX. mendera arte atlantiar izokina erriean barrera ikustea ohikoa zen. Geroza ordea, industrializazioak eta garai horrek ekarritako ur kutsadurak eta presen eraikitzeak espeziea desagerrarazi zuten, Bidasoan izan ezik.

Langileen Egunerako irudi partekatua

Kalean aldarrikatu ezin go den Langileen Egunaren bezperatan gaudete. Maiatzaren lehen honetan euskal gehiengo sindikalak argazkiko irudi bera partekatzea erabaki du, nahiz sindikatu bakoitzak, LAB, ELA, ESK, STEILAS, HIRU eta ETXALDEK bere aldetik bideratuko dituen mobilizazioak. Denek ordea, herritarrei leiho eta balkoietan irudi hau ikur gisa jartzera deitzen diete. Kapitalak marrazturiko etorkizun ilunaren aurrean, bizitza erdigunean jarriko duen “etorkizun koloretu eta dinamikoa” irudikatu nahi du euskal gehiengo sindikalak modu honetan.

Gogoan izan, Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladak azken hilabete honetan martxan izan duen Bloke Gorria



Herritarrei leiho eta balkoietan irudi hau ikur gisa jartzera deitzen diete LAB, ELA, ESK, STEILAS, HIRU eta ETXALDEK.

formazio zikloa ere ostiral honekin borobilduko dutela. Astero gai ezberdinen baten bueltan hezteko aukera eskaini dute. Borroka astea iragarri dute egunotarako hilaren 30era arte.

Arrisku handia duten langileak lanera deitu dituela salatu du Michelingo ELA sindikatuak Gogoan izango duzue; bi aste teko jarduna etetea agindu ostean, apirilaren 14an industria edota eraikuntzaren sektoreko

lantegiei berriz ere martxan jartzeko aukera baimendu zien Espainiako Gobernuak. Tartean Michelin lantegiari. ELA sindikatuak ohar bidez salatu duenez ordea, COVID19-az kutsatzeko arrisku handiena duten langileak lanera deitu dituen enpresako zuzendaritzak; tartean, besteak beste, 60 urtetik gorako langileak baita osasun arazoak dituztenak ere. “Jarduera horien bidez agerian geratzen da, enpresak ekoizpena langileen osasunaren aurretik jartzen duela”.

Michelingo lan taldearen zati batek ERTEan segitzen du. Gainerakoek lanean. “Langileen zein haien familien osasuna lehenestea, lantegian kutsatzeko saihesteko neurri guztiak hartzea eta arrisku egoeran dauden langileek instalazioak ekiditea” galdegin du ELA-k.

Aitzagaren kontu korrontea enbargatu du Espainiako Auzitegi Nazionalak

Apirilaren 22ko azken orduko albistea. Sor-tuk ohar bidez jakinarazi zuenez, Espainiako Auzitegi Nazionala herriko taberna eta elkarten sententzia exekutatzeko hasi zen. Usurbil dagokionez, Ezker Abertzaletik salatu zuten, “Aitzagako kontu korrontearen enbargoa digute”.

Halere ohartarazi dutenez, 2012ko ekainean irekitako kontu zenbakia da enbargatu dutena eta “diru hauek zerikusirik ez dutenez, berreskuragarria izango da”. Halere, Espainiako Auzitegi Nazionala exekutatzeko hasi den herriko tabernen eta elkarten aurkako sententzia, “1936ko gerraz geroztik eman den expolio ekonomiko eta politiko handiena” da.



Ezker Abertzaletik iragarri dutenez, “Koronabirusa dela-eta egoera arraroa izanik ere, ez gara isilik geratuko”. Argazkia artxibokoa da.

EZKER ABERTZALEA
Herriko tabernen eta elkarten aurkako sententzia “1936ko gerraz geroztik eman den expolio ekonomiko eta politiko handiena da”

Espainiako Auzitegi Nazionalaren jokabidearen aurrean, “Euskal Herrian askapen prozesuann urrats sendoak eman ditugu azken urteetan eta norabide horretan borrokan segiko dugu eta egoera konplexua izanda ere, eraso honek ez gaitu isilik utziko”.

Ernai: “Aitzaga defendatuko dugu”

Aitzaga defendatuko dutela iragarri du Ernai Usurbilek. “Erregimena berriz ere, euskal biztanleria kolpatu nahian dabil. Herriaren eraikuntzan ezinbesteko izan diren guneak lapurtu nahi dizkigute, baina gu ez gara burumakur gertatuko, Aitzaga herriarena baita. Aitzaga defendatuko dugu!”.

“Lapurretarik ez”

Ildo beretik, eskualdeko herrikoak “libre!” nahi dituztela aldarrikatu du Ernai Buruntzaldeak. “Buruntzaldeko gazteok herriaren guneen defentsan berresten gara eta horiek herritarren bano ez direla adierazten dugu. Ez dugu lapurretarik onartuko, eta, oztopoak oztopo, Herriko Tabernetan gure herriaren askapen prozesuan jarduten jarraituko dugu”.

Esther Arrojeria: “Kontu handiz ibili behar dugu. Gure beharra dutenak arrisku taldekoak direlako”

Puntako eskubaloi jokalaria da. Esan beharrik ez da. Askok ordea, ez dute jakingo erizain gisa ere aritzen dela Esther. Donostiako Guna osasun zentro pribatuan egiten du lan. Materiala falta dela adierazi digu, “baina egoera hobetuz joan da pixkanaka eta beharrezko baliabideak lortzen joan gara”.

NOAUA! Kirolari profesionala zara baina baita erizaina ere. Asko kostatu al zaizu konfinamenduak ezarri duen egoera berrira egokitzea?

Esther Arrojeria. Ospitale munduan ez nabilenez, ez dut lanean ia aldaketarik atzeman. Beno, lehen baino lan gutxiago daukagula, besterik ez. Izan ere, egoera normaletan laneko errekonozimendu medikuak, kontsulta ezberdinak, odol analisiak, etxeetara bisitak eta abar egin ohi ditugu. Egunotan, berriz, behar beharrezkoak diren etxeetako bisitak bakarrik egiten ditugu, birusa zabaltzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko. Egia da higiene neurriekin, distantziekin eta gainerako gomendioekin kontu berezia izan behar dugula. Gure bisitak jasotzen dituztenak, ia beti, arrisku taldekoak direlako. Baina gainerakoan, nire lana ez da aldatu.

Nolako egoeran ari zarete lanean? Materiala falta zaizue oraindik ala egoera hobetu egin al da azken egunotan?

Lehen esan bezala, ez dut ospitalean lan egiten eta ez dakit bertako egoera benetan nolakoa den, baina material falta dagoela egia da. Nire esperientzia pertsonala kontuan izanda, konfinamendua hasi zenean 2 maskarila eman zizkidaten eta horiekin moldatu behar nuela



Donostiako Guna osasun zentro pribatuan egiten du lan. “Higiene neurriekin, distantziekin eta gainerako gomendioekin kontu berezia izan behar dugu orain”.

ESTHER ARROJERIA

“Azken asteetan material gehiago eskuratzen joan gara. Babes neurri gehiagorekin lan egin ahal izan dugu eta espero dut, ospitale eta gainerako osasun zentroetan ere, pixkanaka egoera hobetuz joango dela”

esan zidaten, enpresa maskarilarik gabe geratzen ari baitzen dagoeneko. Hauek, normalean erabilpen bakarrekokoak direla

kontuan izanda, argi dago ez nintzela egoera egokienetan lanean aritu, ez nire babeserako, ezta nire pazienteenerako ere.

Gainera, eman zizkidaten maskarila horiek ez zuten nire burua babesteko balio, baizik eta nik gainerakoak ez kutsatzeko baizik. Baina tira, azken asteetan material gehiago eskuratzen joan gara, babes neurri gehiagorekin lan egin ahal izan dugu eta espero dut, ospitale eta gainerako osasun zentro edo zentro soziosanitarioetan ere, pixkanaka egoera hobetuz joango dela eta beharrezko baliabideak lortzen joango direla.

“Liga amaiera airean dago oraindik”

NOAUA! Eskubaloira itzuliz, denboraldia amaitutzat eman al daiteke? Zer diote Bera Bera taldekoek?

Esther Arrojeria. Ba oraingoz ez daukagu berririk. Badakigu federazioak ez duela txapelketa amaitutzat eman nahi eta posible denean, berriz martxan jarri nahi duela. Baina jokalarion artean iritzia nahiko bateratua da. Epe labur-ertainean, ez dugu posible ikusten horretarako baldintzak beteko direnik. Pandemiaren hedapena nolabait kontrolaturik balego ere (nire zalantzak ditudan arren), aurrendenboraldi moduko bat burutu beharko genuke berriz lehiatzen hasi aurretik; oraingo egoera kontuan hartuta, lesio arriskua oso handia baita. Eta horretarako, daukaguna baino denbora gehiago beharko genuke.

Nik, eta baita nire klubak ere, nahiko argi daukagu ezingo dela txapelketarekin aurrera egin, baina azken hitza eskubaloi federazioak duenez, itxaron besterik ezin dugu egin.

Bestalde, denboraldia amaitutzat emango balitz, zein erabaki hartuko lirartekeen ere argitzeke dago: txapelketa moztu zeneko emaitzak hartuko diren kontuan saillkapena erabakitzeke, liga anulatutzat emango den, jaitsierarik eta igoyerarik izango den... Guztia airean dago oraindik.

“Faltan botatzen ditut lagunarteko arratsalde luzeak”

NOAUA! Labur bada ere, zer da konfinamendutik okerren daramazuna? Eta alde onik ikusi badiozu, zein nabarmenduko zenuke?

Esther Arrojeria. Okerren daramadana maite dudan jendea ezin ikusi eta ezin besarkatzea da. Eta egun eguzkitsuetan ezin eguzkiaz behar bezala disfrutatzea.

Faltan sumatzen dira lagunarteko arratsalde luzeak edozein tabernetako terrazetan, hondartza inguruko ibilaldi luzeak ilunabarra gerturatzeko den bitartean, mendi bueltak... Baita eskubaloia ere, noski. Inoiz ez dut aurrendenboraldia gustuko izan, baina datorren denboraldian ikaragarriko irrikaz hartuko dudala uste dut. Baina tira, bueltatuko dira, une horiek guztiak bueltatuko dira.



Lagunak besarkatu eta eskubaloian jokatu. Konfinamendu egun hauetan, Esther Arrojeriak horiek ditu faltan.

ESTHER ARROJERIA

“Aurrendenboraldiak ez ditut gustuko, baina datorren denboraldian ikaragarriko irrikaz hartuko dudala uste dut”

Alde onei dagokienez, nik uste lehen aipatutako gauza

txiki horiek guztiak baloratzen ikasteko balioko digula.

Benetan zorionsu egiten gaituzten gauzak, horrelako momentuak, maitasun zeinuak eta detaile txikiak direla konturatzeko; eta hau dena pasatzen denean, horiez behar bezala gozatzen ikasteko.

“Asko gustatzen zait erizain lana”

NOAUA Noiz edota nola piztu zitzaizun erizaintza ikasteko gogo. Erreferentziaren bat zenuen gertu?

Esther Arrojeria. Egia esan, ez nuen betidanik bokazio delako hori sentitu. Bigarren batxilergoa bukatzeraz nindoala, oraindik ez nuen batere argi zer egin edo zer ikasi nahi nuen.

Argi neukan pertsonen kontaktu zuzena zuen zerbait gustuko nuela. Eta eskubaloia tarteko, Donostian ikasteko aukera izateari lehentasuna emango niola. Azkenean, gauza ezberdinak baloratu ondoren, erizaintza ikastea erabaki nuen eta ez naiz batere damutzen.

Izugarri gustatzen zait erizaina izan eta gainontzekoei laguntzeko aukera izatea.

Greba digitala babesteko mosaiko erraldoia

Gogoeta eta eztabaida soziala eragin, bizi dugun larrialdi egoerak eragindako kalteei erantzuteko premia hartzea exijitu edota gabezia edota premia larriak kudeatzeko elkargune bat sortzeko lanari ekitea. Hiru eskakizun hauen bueltan greba digitalerako deia egin zuen euskal kultur gintzak apirilaren 21ean eta 22an.

Bi egunotan sarean kultur edukirik ez partekatzea eskatu zuten. Milatik gora norbanako, talde zein elkarteek bat egin zuten kultur gintza.eus atarian plazaratu zen manifestuarekin. Tartean ziren Usurbilgo hainbat sortzaile ere. Eta



Bi egunetan, sarean kultur edukirik ez partekatzea eskatu zuten.

Buruntzaldeko gazte sortzaileak ere bai; greba digitalari

atxikimendua adierazteko ondoko mosaikoa osatu zuten.

Ikasleen zaintza sarea Udarregin eta Oriarten

Ikasleen zaintza sarea martxan jarri dute Udarregi Ikastolan eta Usurbil nahiz Lasarteko Oriarte Institutuan, ikasketetan laguntza jaso nahiz eskaini nahi duten ikasleentzat. Internet bidezko zerbitzuan, ikasleek dagokion mailan eta laguntza jasotzea behar luketen arloetan sartu eta “bertan txertatu ditzakizue dituzuen apunteak, eduki ezberdinak, etxeko lanak eta abar”. Eta laguntza eskatzeko aukera dago. Sare honen koordinatzaileak eskatzailea eta laguntzailea elkarrekin hartuemanetan jartzeaz arduratzen dira.

Gelditu, hausnartu eta erabakitzeneko solasaldi digitalak

Krisialdiak aurreko ereduetan sakondu edo bide berriak jorrazteko inflexio puntuak direla adierazita eta “norabide bat ala beste hartu, herritarrok erabaki beharko genukeela sinestuta”, “Gelditu. Hausnartu. Erabaki” solasaldi digitalen zikloa abiatu du Gure Eskuk. “Kultura: apustu egiteko garaia” eta “Espazio publikoaren itxiera” saioak eskaini ditu egunotan Youtuben duen kanalean zuzenean. Ikusgai dituzue bertan. Gauza bera egingo du programatuak dituen gainerako saioekin ere.

Laster, komunitatearen babesa indartzeko bazkideza kanpaina abiarazteko da Gure Esku. Erabakitze eskubidea arautzeko erreferendumaren aldeko sinadura bilketa masiboa abian dute baita, hamaikagara.eus atarian.



Laster, komunitatearen babesa indartzeko bazkideza kanpaina abiarazteko da Gure Esku.

“Gelditu. Hausnartu.

Erabaki”

Apirilak 30, osteguna

■ 19:00 “Gobernantza ereduaren krisia” (gaztelaniaz).

Maiatzak 5, asteartea

■ 19:00 “Elikadura eta kontsumo: teoriatik praktikara”.

moa: teoriatik praktikara”.

Maiatzak 7, osteguna

■ 19:00 “Sistemaren krisia” (gaztelaniaz).

Informazio gehiago: guresku.eus

Antolatzailea: Gure Esku.

“Etxealditik Euskaraldira”, martxa betean

Geure hizkuntza ohiturez hausnartu eta euskararen erabilera sustatzeko abian da “Etxealditik Euskaraldira” ekimena. Egunotan egunero jasotzen ari gara sare sozialen bidez, aipatu helburuak betetzeko hainbat proposamen; jolasteko gonbita, “online poteoa”...

Batetik, etxeko kideen artean erabiltzen diren hizkuntza ohiturei erreparatzea du helburu Euskaraldiak, eta, bestetik, horiek finkatzea (euskaraz aritzeko ohitura izanez gero) edo aldatzea (beste hizkuntza bat erabiliz gero).

Etxeko hizkuntza ohiturak euskararen aldatuta kalera atea-

ratakoan euskaraz jarraitzea errazagoa dela argudiatu dute antolatzaileek.

Maiatzaren 3an, ekimen bateratua

Hala, apirilaren 30era artean, egunero proposamen berri bat egingo dute sare sozialen bidez (Facebooken, Twitterren, Youtuben zein Instagramen jarrai daitezke). Horrez gain, maiatzaren 3an ekimen bateratu bat egingo dutela iragarri dute.

Oraingoz, Etxealditik Euskaraldira ekimenean parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak, eta hala egitea erabakitzen dutenei euren balkoi edo leihoak apaintzeko eskatu diete, koloretako borobil bat



Balkoiak edota leihoak apaintzeko eskatu zaie herritarrei, koloretako borobil bat eginda.

eginda.

Informazio gehiago:

usurbil.euskaraldia.eus
euskaraldia.eus

Azken ostiralik ez plazan, presoek idazteko deia

Euskal presoek eskubideen aldeko elkarretarazteak etenda dauden honetan, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak eta Ernai Usurbilek presoek idazteko gonbita luzatu dute. Aranjuezeko espetxean dira Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga:

Olatz Lasagabaster Anza
Centro Penitenciario Madrid VI-Modulo F2
Carretera N-400, km 28
28.300 Aranjuez (Madrid)

Patxi Uranga Salbide
Centro Penitenciario Madrid VI-Modulo 1
Carretera N-400, km 28
28.300 Aranjuez (Madrid)

“Gogorra izaten ari da”

Hala adierazi zuen hunkituta, Olatz Lasagabasterren ama Mari Karmen Anzak ETB-ren duela bi asteko “Ur Handitan” saioan eskaini zuen elkarrizketan. Gurasoekin egon nahi duen Xua bilobarekin bizi da. Espetxealdiaren hiru laurdenak beteta aske behar zuten arren, 2021erako dute irteera data Olatzek eta Patxik.

Covid19-aren eragina bizi-tzen ari dira egun. “Baldintzak askoz gogorragoak” direla dio Anzak. Olatz haurdun dago, uztaila amaieran jaioko da haurra. “Ia arroparik gabe dago”, bere amaren esanetan, Picassenteko espetxetik apenas eman dieten eta arroparik. Espetxeko funtzionario bati koronabirusa martxoaren 5ean diagnostikatu ziotenetik ezin izan du bisitarik jaso Olatzek, Patxik konfinamendua hasi zenetik. “Bisitatu ezina oso gogorra da eta oso gaizki pasatzen da”, Mari Karmenen esanetan. Olatz eta Patxi elkarren artean elkarrekin komunikatu eta egon ezinik dabilta gainera.

Udalak lore eskaintza baten bidez omendu zuen Zumeta

Lehen omenaldi gisara, herritarrek abiarazitako lore eskaintzara batu zen Usurbilgo Udala ere. Herri erdigunean, frontoiaren horman sortu zuen mural handiaren parean, Zumetaren irudi bat jarri eta lore eskaintza egin zioten udalbatza osatzen duten hiru udal taldeetako (EHBildu, EAJ eta PSE) ordezkariak.

Lore eskaintzan grabaturiko bideoarekin ondoko adierazpena plazaratu zuen Udalak: “Usurbilek, Euskal Herriak eta oro har kulturak itzal handiko artista galdu dute. Jose Luis Zumeta eta Usurbil binomio banaezina da. Sinbiosi sakona izan dugu betidanik. Usurbilgo Txokoalde auzoan jaioa, gertuko pertsona zen Jose Luis. Bere apalean arrasto itzela utzi du han eta hemen, eta zer esanik ez Usurbilen, gure herriaren izaerari arnasa emate-raino”.

Frontoi atzeko murala, egun Mikel Laboa plaza dena, Txikiardi auzoko arte estudioa... “Han hemen, nonahi ageri da gure bazterretan Zumetaren izenpean. Izan ere ez da kasualitatea Usurbilek euskal sorkuntzarekin duen harremana eta konpromisoa. Gure herriko artista handiei zor dieguna, Artze anaiei eta Jose Luis Zumetari besteak beste”.



Udal ordezkariak lore bana utzi zuten Zumetaren muralean. Argazkian, Agurtzane Solaberrieta alkatea. Argazkiak: Ibai Arrieta.

UDALA

“Zumeta-Artze-Laboa. Zorte izugarria izan dugu hiru pertsona horiek gure parean, gure herrian tokatu izana. Luxua eta ohorea”

Zumeta-Artze-Laboa, “hirukote horrek markatu gaitu”, dio udal oharrak. “Zorte izugarria izan dugu hiru pertsona horiek gure herrian tokatu izana. Luxua eta ohorea”.

Agurtzane Solaberrieta, EHBildu “Kolpe gogorra jaso dugu gaur usurbildarrok, Euskal Herriak eta, oro har, kulturak Jose Luis Zumetaren heriotzaren berri izan dugunean. Arte garaikidearen ikur, artista bizi eta emankorra izan da Zumeta.

Gure herriaren imaginario kolektiboan ezinbesteko erreferentzia. Mila esker!”.

Josune Urkola, EAJ-PNV

“Zumeta margolaria eta artista zendu zaigu. Koloreak gehien behar ditugun egun hauetan agur esan digu bere lanetan koloreak uztartuz bizipoza eta indar guztia adierazten zigan artista handiak. Honen lekuko belaunaldietarako geratuko zaigu herriko frontoiko horman utzi digun isla bikaina. Agur eta ohore”.

Patxi Suarez, PSE-EE

“Usurbilgo alderdi sozialistatik gure doluminak Zumeta margolariaren familia eta lagunei adierazi nahi genizkieke. Usurbilen, Euskal Kulturaren eta Euskal Artearen erreferente handietako bat, gugan bego”.



Josune Urkola EAJ-PNVko zinegotzia eta Patxi Suarez PSE-EEko zinegotzia, Zumetaren omenezko lore eskaintzan.

Oroimen liburua

Konfinamendu egoera honetara egokituriko liburu zuri bat ireki zuen Udalak, herritarrek bere mezuak helarazi zitzaizkion, bere garaian, Joxan Artze edota Mikel Laboa hil zirenean egin zuen moduan. “Argazkiak, testuak, marrazkiak, bideoak... edozer izan daiteke”. Mezuok gero bideo batean batzeko asmoa dute hurrengo egunotan.

Herri omenaldia, aurrerago

Aurrera begira, bizi dugun konfinamendu egoera aldatzen denean eta baldintzek ahalbidetzen dutenean, Jose Luis Zumetari herri omenaldi handiagoa egingo zaiola iragarri du Usurbilgo Udalak.

Eskaintzarako loreak dendetan

Frontoiko muralaren oinean loreak agertzen hasi ziren Jose Luis Zumeta hil eta gutxira. Ekimen honi jarraipena eman asmoz, loreak eskuragarri jarri zituzten dendetan Usurbilgo Udalak eta hainbat herritarren arteko ahaleginari esker. “KoLOREAK Zumetari, zurea eskaini” aldarripean, saltokion atarietan eskura zitezkeen sortzaileari eskaintzeko gero. Loreekin batera, Zirriborro eskulan eta pintura tailerrekoek ere bere ekarpena egin zuten.



Loreekin batera, Zirriborro tailerrekoek bere ekarpena egin zuten Zumetaren muralean.

“Bihotzarekin margotzen zuen Jose Luisek”

Vicente Amezttoy, Karlos Zabala eta Jose Luis Zumetaren artean sortutako mural historikoa da argazkian agertzen dena. Karlos Zabalak eskaini dizkigu xehetasunak, Zumeta zendu berri den honetan.

NOAUA! Argazkian, 1989an modu kolektiboan sortu zuten murala ageri da. Jose Luis Zumetaren eskubitara zaude. Aurkeiztuiguzu artelana.

Karlos Zabala: Lemoizko zentral nuklearraren aurkako jaialdi erraldoi bat antolatu zen Bilboko erakustazokan. Une hartako musika talde piloak parte hartu zuen, diska bat ere grabatu zen, besteak beste emazte Amaia Kasasolak parte hartu zuen. Bitartean, Zumetak, Amezttoyk eta hirurok bi egunean zehar mural hori margotu genuen. Ekitaldi oso hunigarria izan zen.

Mural horretan zer islatu nahi izan zenuten?

Une hartan Lemoizen zentral nuklearra eraikitzeke zeuden interes handiak islatu nahi genituen. Villabonan Vicente Amezttoyren etxean bilduginen. Bozetotxo bat egin genuen, bakoitzak bere estiloan; Jose Luisek pertsonaiak sortu zituen. Amezttoyk mahaia bere estiloko paisai idiliko bat bezala marraztu zuen. Erdian suge borroka hori, gizon txikien bo-



Margolanean Jose Luis Zumetak eta Karlos Zabalak hartu zuten parte.

KARLOS ZABALA

“Lemoizen zentral nuklearra eraikitzeke zeuden interes handiak islatu nahi genituen”

rroka botere handiaren aurka islatu nahi genuen. Ze gutxi garen, baina azkenean lortu genuen Lemoiz gelditzea gutxienez.

Ahaztua dugula dirudi baina herriaren izugarritzeko garaipena izan zen, ezta?

Oso potentea izan zen. Aztarinak hor daude oraindik, haiekin zer egin oraindik ez dute asmatu. Sustatzaileengatik bultzatuz, gaur egun zentral nuklear bat izango genuen. Jendea bidean gelditu zen, hildakoak ere izan ziren bi aldeetatik. Oso gogorra.

Bilboko Arte Ederren museoan zen, konfinamedua heldu zenean. Margolan honek zer bide egin du urteotan?

Pieza ezberdinak zituenez, desmuntatu eta gorde egin zen. Bilboko erakustazokan egon zen lehenik, handik Gerediaga elkartera eramane zutela uste dut. Zer egin erabakitzen arituta, Bilboko Gezia Gladys del Estal fundazioak berreskuratu, muntatu eta Otxandiora eramane zuten. Gerra ondoko historia jasotzeko egiten ari diren ahaleginean, mural horrekiko interesa zuten. Ikastola ondoko pabilioi batean txukun muntatu eta Jose Luisek ukitu batzuk eman zizkion. Bertan zela, gestio bat egin zen Bilboko Arte Ederren museoarekin. Obretan dira baina toki berezi bat egin asmo diote. Bizi dugun egoeraren aurretik,

Vicente Amezttoyren artelanean erakustetan zegoen.

“Oso eskuzabala zen”

Nola bizitzen ari zara Zumetaren heriotza?

Zumeta oso emankorra izan da gizartearekin, bai kideekin eta bai arte mailan. Oso emankorra, eta bere lana oso zabala da. Oso gauza gutxi utzi zuen egin gabe. Alde horretatik, lasai joango zela uste dut. Oso langilea izan zen beti.

Baina niretzat mingarriena, pertsona joan zaigula. Errepikaezina da, bihotz handikoa, emankorra eta fidela. Askok maitatu izan dugu. Oso eskuzabala zen. Hasten ari zirenei laguntzen beti. Niri ere lagundu zidan. Hondarribian bizi zela ezagutu nuen. Han elkartzeko ziren Oteiza, Basterretxea, Chillida, Sistiaga, Remigio Mendiburu... Nik han ezagutu nituen denak, bereziki Jose Luis. Profesional gisa, nire aurreneko lan serioa bere eskuetatik heldu zen. Jai areto baterako berak egin zuen dekorazioa. Koadro serie bat sortzea eskatu zidan. Nire anaia Ez Dok Amairuko kide zen, Zumetak eta biek elkarrekin lan egin zuten. Ez Dok Amairuren kartela bien artean egin zuten. Une hartan ezagutu nuen eta harrez geroztik anaien moduko hartueman estua izan dugu.

“Zumeta Usurbilgo enbaxadore ona izan da”

NOAUA! Zumetaren sortze lanetatik zer berezitasun nabarmenduko zenituzke?

Karlos Zabala. Bihotzarekin margotzen zuen, freskura handia zuten bere lanek eta oso espontaneoak izan da. Garrantzia eman gabe azken emaitzari.

Nola oroitu behar genuke?

Niretzat bere xarma pertsonalaz, bere eskuzabaltasunaz oroitu behar genuke. Une honetan tristura handia dut. Bat batean izan da, gogorra izan da. Une honetan gainera ezin dugu familiarekin elkartu, ezin berari omenalditxo bat egin.

Datorren sortze lana, ome-

naldia prestatzen joatea izan liteke?

Merezi du. Omenaldi handi bat merezi du. Beti Usurbil-ekin joan da mundu osoan zehar, enbaxadore ona izan da. Bere erreferentzia beti Txokoalde izan da, taberna ingurua. Amaia eta biok ezkondu ginenean afaria

Txokoalden egin genuen. Zumeta jatetxea itxi zuten eta han bildu ginen Artze anaiak, Jose Luis, Mikel Laboa, Txomin Artola... Festa handia izan zen. Handik urtebetera etorri ginen Txokoalde ondora bizitzera. Zumeta sendiarekin harreman ona izan dugu beti. Maitagarriak dira.

Etxepare Euskal Institutua: “Utzitako aztarna itzelak betiko jarraituko du gurekin”

Iñaki Soto

“Guretzat, Gara egunkaria-
rentzat, Zumeta fundazionala
izan da. Mila esker guztiagatik.
Ohorea izan da”.

Ikastolen Elkarte

“Jose Luis Zumeta hil zaigu.
Artista handia izateaz gaine-
ra ikastolen gertuko pertsona
bihotz handiko eta eskuza-
bala izan da. Bereak ditugu
besteak beste Araba Euskaraz
2005eko irudia, eta Kilometroak
2015erako bere alaba Usoarekin
batera berariaz egindako mu-
rala eta serigrafia. Nafarroa Oi-
nezek 2017an omendu zuen Ar-
tea Oinez ekimenaren baitan”.

Pirritx Porrotx

eta Marimotots

“Behin marrazki batzuk eskaini
zenizkigun, gaur haiekin egiten
dizugu omen. Zuretzat, Jose
Luis, Pirritx, Porrotx eta Mari-
motots taldeak, maitasunez”.

Xabier Euzkitze

“Kolorez Dolorez Amorez Oho-
rez Zumeta. Ez adiorik!”.

Sei EHmeak

“Mundu Berria Daramagu Bi-
hotzean! Hamaika Herri Bo-
rroka Bakarra! Agur eta Ohore
Zumeta!”.

Fermin Muguruza

“Agur eta ohore Jose Luis Zu-
meta, eta eskerririk asko bizitza
kolore biziz margotzeagatik”.

Etxepare Institutua

“Euskal artearen izen handie-
tako bat joan zaigu gaur: Jose
Luis Zumeta. Artista berritzaile
eta oparoa. Utzitako aztarna
itzelak betirako jarraituko du
gurekin. Ez adiorik”.



Berri Txarrak: “Agur eta ohore JL Zumeta. Hemen #Zumeta Arte Estudioan grabatzen izan ginenekoa. Eskerririk asko eta besarkada estu bat senitartekoei”. Mezu gehiago batu ditugu noaua.eus web orrian.

USOA ZUMETA

“Eskerririk asko egun hauetan gertutasuna adierazi diguzuen guzti-guztiei”

Araba Euskaraz

“Jose Luis Zumeta gogoan.
Zumetaren heriotzak Euskal
Herriko kultur mundua sa-
mina sortu du, baita 2005eko
Amurrioko Araba Euskaraz
zela-eta ezagutu genuenon
artean ere. Esan bezala, bera
izan zen erabili genuen irudia-
ren egilea”.

Landaberri ikastola

Lasarte-Oria

Jose Luis, Landaberri
kolorez jantzita
utzi zenigun maixu
gisa ibilita
logoa egin zenigun
zu bai, zu artista
joan zara gurean
irri bat utzita

Tabakalera

“Gaur taldeko kide gisa, euskal
arte nazioarteko abangoardie-
kin lotu zuen. Komunitateare-
kiko zuen konpromisoak arras-
to handia uzten du, pinturatik
haratago”.


Bilboko Arte

Ederren Museoa

“Hasierako informalismotik
abstrakzio lirikorara eboluziona-
tu zuen bere ibilbidean, baina
beti koloristari eutsita. Intuizioz
eta pasionalki lan egin zuen.
Berarentzat lan bakoitza bere
irudimena eta sormena islatze-
ko erronka handi bat izan zen”.

Chillida Leku

“Eduardo Chillidak sakonki
estimatzen zuen Jose Luis Zu-
meta margolaria. Besteak beste
berarekin osatu zuen Gaur tal-
dea, Donostiako Barandiaran
galerian. Chillida Lekun bera
joan izanak sakon atsekabe-
tzen gaitu eta bere sendia la-
guntzen dugun afektuz”.



Argazki honekin batera, Usoa Zumetak mezu hau partekatu zuen aurreko igandean: “Eskerririk asko egun hauetan gertutasuna adierazi diguzuen guzti-guztiei. Une zail eta ‘arraro’ honetan zuen berotasuna iritsi zaigu. Agur aita”. Usurbil, 1973. Argazkia: J. M. Zabala.

“Pariseko egonaldia erabakigarria izan zen”

Ismael Manterola EHUko irakaslearen esanetan, “Zumetak gozatu egiten zuen pintatzen. Eta seguraski horrela hil da, gustuko zuena egiten”. Euskadi Irratian Baipasa saioan eginiko adierazpenak dituzue hauek. Solasaldiaren audioa noaua.eus web orrian estekatu dugu. Pasarte esanguratsuenak hemen jaso ditugu.

Pintura izan da bere arloa. Margolaria izan da, leial diziplina horri.

Ismael Manterola. Bai, nik uste dut beti bere burua margolaritzat eduki duela, uste dut gozatu egiten zuela pintatzen. Seguraski horrela hil da, gustuko zuena egiten eta bai, uste dut leial izan dela pinturari. Inoiz ez zaio asko gustatu bere lanari buruz hitz egitea edo kontzeptuetan sartzea.

Pinturari leiala eta 60ko hamarkadan sortu zuten Gaur mugimenduari ere bai, ezta?

Gaur eskolako kiderik gazteena zen. Mugimendu horrek bazuen ezaugarri bat; gizartearekin konpromisoa. Artearekin konpromisoa, diziplina batekin konpromisoa, kasu honetan pinturarekin konpromisoa, baina baita ere, herri batekin konpromisoa. Nik uste dut hor, Gaurren jasotako hori ez duela inoiz alde batera utzi Zumetak.

Lehenago gaztetan Parisen egin zuen egonaldiaz ere entzun izan genion, bere erreferenteak aipatzerakoan.



Herritar batzuk modu anonimoan egin zuten bideo batek arrakasta handia izan zuen sare sozialetan. NOAUA!ren web orrian duzue ikusgai.

ISMAEL MANTEROLA

“Gaur taldeak bazuen ezaugarri bat; gizartearekin konpromisoa. Jose Luis Zumetak ez zuen hori inoiz alde batera utzi”

Pariseko egonaldi hura motza izan arren, erabakigarria izan zen. Garai horretan informalismoa, arte mota hori zen nagusi eta erakargarria egin zitzaion berari. Gero, seguruenik jarraitu egin zuela begiratzen alde batera eta bestera, baina baita Ameriketako espresionismo abstraktura ere. (...). Beraz, uste dut oso erraza dela txertatzea nazioarteko testuinguru batean, ez gure artean bakarrik.

Eta olioiz pintatu zuen nagusiki?

Olioarekin eta akrilikoekin esango nuke. Margolari lan horretan jarraitu zuen betiko teknikekin baina beti zerbait berria bilatzen. Kontuan izan

Zumetak hasieran egurrearekin lan dezente egin zuela, erliebe batzuk oso interesgarriak ditu, bere hasierako garaioak eta alde horretatik nik uste dut baita ere bilaketa prozesu bat izan zuela. Baina guk pintura egiteagatik ezagutzen dugu.

Neurri handiko koadroak sarri. Zer garrantzia izan du muralgintzak bere ibilbidean?

Oso ondo moldatzen zen neurri handian. Egia da ikusi izan ditugula gauza txikiagoak ere. Baina uste dut garai horretako pintoreek, gutxi gorabehera 60ko hamarkadan gorputz osoa okupatuko lukeen espazioa betetzea zela euren asmoetako bat eta keinu edo gorputzaren adierazpen hori mihisean islatzea baldin bada helburua, nire ustez tamaina handi batean egokiago bilatu zutela hor euren bidea. Tartean dira Zumetaren mural handiak. Gernikaren interpretazio bat, adibidez. Horrelako gauzetan uste dut ondo moldatzen zela eta gustura egiten zuela lan hori.

“Nik bakarrik mugatzen dut nire askatasuna”

“Niretzat pintura bizitzeko modu bat da. Ez bakarrik pintura lanbide bezala, baizik eta pinturak berarekin dakarren bizitza eta askatasuna. Ez dago fitxatu beharrik, ez daukazu nagusirik ez eta langilerik. Hori da askatasuna. Nik bakarrik mugatzen dut nire askatasuna”.

Honela hasten da Idoia Torregarai Zumetari 1997an aldizkari honetan bertan egin zion elkarrizketa. Web orrian berreskuratu dugu orduko solasaldia. “Jose Luis Zumetaren berri etxean izan nuen, aitaren ahotik. Laguna zuen eta artixta haundiya deitzen zion. Frontoi atzeko murala ere berak egin zuela esan zidan, eta nire bizitzako paisajearen zati izan da”, azaldu berri digu Torregarai. “Gaztāñan parez pare; koloretsu, ikusgarri eta beti presente. Kazetaritza karrera bukatu eta NOAUA!n hasi berri hartan Jose Luis elkarrizketatzeko aukera izan nuen. Urduri joan nintzen tabernara nire koaderno eta grabagailuarekin, Zumetak merezi zituen galderak egingo ote nizkion kezkarrekin. Bera hitz egiten hasi ahala ahaztu zitzaizkidan urduritasunak. Pinturarekiko zuen pasioak harrapatu ninduen lehen esalditik. Lasai hitz egiten zuen, batzuetan bere buruarekin bakarrik arituko balitz bezala, eta era berean, gertu. Norbait bereziaren aurrean nengoela sentitu nuen hitz egiten pasa zituen ordu parean: artista haundiaren aurrean”.



“1997an zuri-beltzean argitaratzen zen NOAUA!, baina elkarrizketak ez du galdu kolorerik”, Idoia Torregarai aitortu digun moduan.

“Frontoi atzeko zeramikazko muralari garrantzia gutxi eman zaio”

Zumetaren lanak toki askotan aurki daitezke. Etxe partikularretan, museotan edota kalean. Ismael Manterola EHUko irakaslearen ustez, Usurbilgo frontoiaren atzeko murala “ikaragarria da. Nik uste dut

hori egin zuen zeramikazko artelan hori ikaragarria dela, eta uste dut garrantzia gutxi eman zaiola horri. Ez da arte liburu askotan agertzen, seguraski herri txiki batean dagoelako; kapital batean edo hiriburu

batean egongo balitz seguraski gehiago ezagutuko genuke. Lehen aipatu dudana bezala, beste teknika batzuk bilatzen ibili zen urteetan eta zeramika ikasten ere ibili zen mural hori egin ahal izateko”.



Ugaitz Agirre Zapirain

Lehen zatian: Donostiako Jaun-kuntiak bidali zituen buhamiak bere lurretatik eta maskaradaren erritmora, konkistatu zuten Usurbil bilakaturik Üsurbil, Zuberoako 42. udalerrria, eta Pitxuk bere burua herriko alkate izendatu zuen. Establixmentak hartu zuen gerra deklarazio gisa, baina setioa izan zen kaka. Hala, jarri zuten martxan SS operazioa.

Orain: mikeletez inguraturik dute Üsurbil, baina maskaradaren karabanak eta üsurbildarrek eusten diote erasoari egunak joan eta egunak etorri. Eta nahiz eta egon euren herrian konfinaturik, badute etenik gabeko festa. Sartzen dituzte kontrabandoan lehen mailako beharrianak: iraganeko pastoralen grabazioak eta Niko Etxart eta bere lagunak.

Hala etorri da Errobi, eta kantatu du "Atzar hadi! Atzar hadi ene euskaldun haurride! Atzar hadi! Atzar hadi Euskal Herriaren alde!". Hura izan da eromena eta Pitxuk gidatu du populu asaldua Oxtape parera kontra-eraso sorpresa batez Txikierdi eta handik Lasarte konkistatzeko. Baina populu asalduak ez du alkaterearen ideia oso gustuko.

"Lasarte? Hor españolak bakarrik daude!"

"Baina Porrotxek esan dit..."

"Porrotx... Hoi Zabaleta

Bazen behin, Üsurbil (Bigarren zatia)



"Donostiako Jaun-kuntiak bidali zituen buhamiak bere lurretatik eta maskaradaren erritmora, konkistatu zuten Usurbil bilakaturik Üsurbil, Zuberoako 42. udalerrria, eta Pitxuk bere burua herriko alkate izendatu zuen".

UGAITZ AGIRRE

"Maskaradaren karabanak eta üsurbildarrek eusten diote erasoari, egunak joan eta egunak etorri"

da!".

Pentsatzen jarri da Pitxu eta bururatu zaio Orio konkistatzea litzatekeela ona. Horrela itsasorako irteera izango lukete eta laguntza internazionala eskatu. "Gainera bertan bizi da Benito Lertxundi, xiberutarren aliatu leiala".

"Oriyokuak ijituak! Gañea hondartzagatik bada, Üsurbillek badu!" "Üsurbilek hondartza?" "Bai, Igeldon!".

Eta orduan konturatu dira Pitxu eta Kabana ez zela ideia ona izan halako herria konkistatzea. Lo egin eta jentillaje hura nola gobernatu pentsatuko dute

biharamunean. Halere, Oxtapen bildutakoak ez daude lotarako, eta bebida exotika/baby da erotikaren erritmora gaua euren egin dute. Guardian dauden mikeleteek ez dakite ze sunsipen masiboko trikimailu ari diren prestatzen entzun dutenean SAKERREMATE, XABIER SAKERREMATE, XABIER SAKERREMATE!

Biharamunean hau da triskantza, eta hori blasfemia katea Gaztañagako nagusiarena. Nola da posible baratzean zituen barazkiak hondatuak egotea pilotari astakirten batzuek ez dutelako asmatzen pilotak frontisaren aurka jaurtitzen? Kabana, segurtasun indarren buru, gipuzkoarren aurka borrokatzearen entrenamenduak zirela esanez hasi da. "Mozkor kua-drilla honekin pentsatzen dek borrokatzia? Hauekin mendia sagardua baldin badao".

Ez dute askorik animatu Gaztagañako nagusiaren hitzek. Are gutxiago abisatu diotenean armada datorrela estandarte, tronpeta eta ponpa guztiarekin. Han datoz ondo babestuta Zesar balira bezala establixmentaren zaintzailak, baina Üsurbilera hurbildu beharrean Zubietako belazeetan geratu dira. Mezulari bidez iritsi zaie herriko agintariari oharra, gerra hura amaitzeko proposamena egin nahi dutela Gipuzkoako agintariak. Antza denez, birus atzerritarrena uste baino okerragoa izan da eta sekulako ezinegona nabari da gipuzkoarren artean, oraindik gehiago gerra absurdo hau dela eta. Kontuari pare bat buelta eman eta gero, proposamena entzutera hurbiltzeko hautua egin du Pitxu alkateak.

Hurbildu dira gipuzkoarren ponpa imitatu nahian xirula 6/8 sol-la-si-do-re-re-re-mi-re-mi... Dena nahiko era ordenatua egia esan buhame eta buhamesen eta haien ohiturak imitatzen dituzten üsurbildarren komedia aparte uzten bada.

Jarri dira agintariak parez pare Zubietako erreboten plazan. Tentsioa nabari da atmosferan.

"90 minutuko futbol partidua zuek nahi duzuen zelaietan, gure hamaika jokalariek üsurbildar guztien aurka. Onartzen duzue?".

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHASTAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Uganda, laguntza behar larrian

COVID19a gure artean izaten ari den eraginari buruz ari gara egunerokoan. Pentsa ordea lehendik ere bestelako hainbat gaixotasunek kolpatutako Afrikan zer nolako arrastoa utzi dezakeen Ugandan esaterako. Euskal Herriko Mukwano Lagun elkarteak urteak daramatza bertan lanean; hezkuntza, osasuna eta tokiko garapenean eragiten. Proiektu honekin Ugandan izan zen iaz sei hilabetez, NOAUA!ko lankide Alaitz Aizpurua ere.



Alaitz Aizpurua iaz sei hilabete egin zituen Ugandan, Mukwano Lagun elkartearekin batera.

NOAUA! Zergatik Uganda?

Alaitz Aizpurua Labaka: Afrika nuen buruan. Aspaldiko amets bat zen, oporralditik haratago, denboraldi baterako hara joatea. Proiektu ezberdinak aztertzen hasi eta Ugandan kokatua dagoen hemengo Mukwano Lagun elkartearekin ezagutu nuen.

Laguntzaile gisa joan zinela esan daiteke?

Orri txuri batekin joan nintzela esan nezake. Norbere printzipio, ideia eta proiektuekin joan gaitezke baina lehenbizi, haiengana hurbildu, ulertu eta ikasten saiatu behar. Eta gero zer egin dezakedan hausnartu.

Aurkeztuiguzuz Uganda.

Afrika ekialdean kokatua dago. Nilo sortzen den Victoria lakua du bertan. Jinja da bigarren hiri handiena, 100.000 bat biztanlekoa. Handik 15 bat kilometrora dagoen Bujagali herrian egon nintzen. Nekazal munduko herria da. Ugandak 34 milioitik gora biztanle ditu. Bizi esperantza 60 urte

ALAITZ AIZPURUA
“Mukwano Lagun elkarteak hango NEFAHA elkartearekin batera garatzen duen proiektuak hiru zutabe ditu: hezkuntza, osasuna eta tokiko garapena”

ingurukoa da. Emakume batek batz bestea 6 haur izaten ditu. Biztanleriaren erdiak 15 urte baino gutxiago ditu, populazio gaztea du beraz. Aldi berean, nire adineko, 43-50 urte tarteko jendea zaharra da han. Kontraste hori nabarmena da. Ia %30eko analfabetismoa dago. Lehen hezkuntzatik bigarrenera igarotzerakoan eten handia dago. Emakume zein haurrenganako indarkeria, etxetik hasita, nabaria da. Arrisku handiko malaria gunea da baina baita tuberkulosia, hiesa eta bestelako gaitzenak ere. Gaitz hauekin egunero elkarbizitza behar izaten dute.

Datuok eskutan, hara heldu eta zure lehen inpresioa kontatuz.

Paisaia aldetik dagoen kontrastea. Ekuatorean dago Uganda, eguna eta gaua ia parekoak dira, oso tropikala da. Kolore berde eta lur gorri intentsuak ditu. Eta irribarrea da topatzen duzuna.

Hezkuntza proiektu batean parte hartu duzula esan liteke?

Mukwano Lagun elkarteak hango NEFAHA elkartearekin batera garatzen duen proiektuak hiru zutabe ditu: hezkuntza, osasuna eta tokiko garapena. Hiru zutabe horien bueltan aritu ginen lanean. Bi eskola ditugu: 130 haur dituen 3-6 urte artekoena, eta 350 haur dituen Lehen Hezkuntzako. Eskola publikoak Ugandan ez dira doakoak, Nefahako eskolak hauek merkeagoak zaizkie. Elkarteok argi dute hezkuntza dela etorkizuneko giltzarria. Hezkuntzaren bidetik etorriko

da garapena. Osasungintza da beste lan eremua. Malaria dute eguneroko borroka duela urte askotatik, txertorik ez dago eta prebentzioa da neurririk eraginkorra. Oso ohikoa da han malaria, heriotz tasa altuagoarekin gainera. Elkartetik, moskitera, manta eta koltxoiak banatzen ditugu. Dagoeneko ia 1.000 banatu ditugu urte hauetan. Logela bat edo biko etxe hutsak dira. Sukaldea eta komuna kanpoan dute. Koltxoi batean sei haurrek lo egin dezakete eta garrantzitsua da koltxoia eta mantak garbitzea eta moskitera zuzurik gabe. Eskoletan ere erizain bat dago, haurrei osasun arreta eskaintzen die.

Hezkuntza eta osasuna elkar lotuta, elikadura da beste lan eremua. Desnutrizioa erreallitate da Ugandan. Eskolan otordu bat ematen zaie haurrei eta frogatua dago horrek neke kendu eta errendimendua hobetzen diela.

“Etxe askotan otordu bat egiteko aukera dute soilik”

NOAUA! Zeintzuk dira honen bestez bizi baldintzak?

Alaitz Aizpurua Labaka: Bizirauteko oinarrizkoa dute. Etxe askotan otordu bat egiteko

aukera dute soilik. Belaunaldi ezberdineko familiak bizi dira etxebizitzan berean. 10 zuhaixka eta lurraekin etxebizitza bat eraiki dezakete.

Oraindik buztinezko etxeak ikusten dira. 8 hurreko familia batean denak eskolara joan ahal izatea ziur aski ezinezkoa izango da.

Gaixotzen dena medikuarengana joatea ere arazo bat da; mugitzeko garraio gastuak eta probak ere ordaindu beharra.

“Oinarrizko nekazaritzatik bizi dira asko”

NOAUA! Baldintza hauetan, zer nolako bizi proiektua garatu dezakete Ugandan?

Alaitz Aizpurua Labaka: Oinarrizko nekazaritzatik bizi dira asko. Gehienek lur sailen bat dute etxe atarian edo beste baten lurretan lan egiten dute. Kafearen ekoizpena egun leku zehatzetara mugatzen da, azukre kainaberen ekoizpenak irabazi dio lekua. Negozioak dituzten gehienak bertan bizitako indiarrek dira, ustiapen handiak dituzte. Gu bizitako inguruan ere turismoa ere bada. Nilo ibaia kirol jardueretarako aukera asko eskaintzen ditu. Ikasketak dira etorkizuna aldatzeko bidea.

Testuinguru honetan, zer ekarpen egin dezake hara joan asmo duenak?

Edozer. Osasungintzan edo hezkuntzan aritzen den pertsona batek oso erraz ikusi genezake zer egin dezakeen. Administraria naiz, denetarik egin nuen. Gogoia izan eta ikasteko irekitasun hori baduzu, edozer egin dezakezu; bideratzaile lana egin dezakezu, niretzat oso aberatsa izan zena. Osasungintzan, astero 7 familia bisitatzen genituen, sendaketa lanak eta oinarrizko sendagaiak eman, edo ospitalera lagundu. Emakumeekin talde bat osatu eta ahalduntze prozesu txiki batzuk osatu ge-



“Osasungintza arloan, astero 7 familia bisitatzen genituen”, azaldu digu Alaitz Aizpurua. “Sendaketa lanak eta oinarrizko sendagaiak eman, edo ospitalera lagundu”.

ALAITZ AIZPURUA

“Niretzako munduko aberatsena duenarekin zoriontsu dena da”

nituen; josteko tailer bat dinamizatzeko aukera izan nuen, bizi esperientziak partekatzeko oso aberasgarria izan zen. Eskolako gaztetxoekin konpresa berrerabilgarrien inguruko lanketa bat egiteko aukera izan nuen baita, ahuntzen mikrokredituen proiektua jarri genuen abian. Eskolan liburutegi berri bat ere abiatu genuen. Baina aipamen berezia egin nahiko nioke Bordatxuri oilategia martxan jartzeko proiektuari. Bertan lortutako arrautzak haur eskolako porri-

gean proteinak izateko erabiltzen ditugu.

Zer da gehien baloratzen duzuna?

Irribarrea. Ohikoa da handik itzuli eta “ze pobreak ezta?” entzutea. Gu agian askoz gehiago izan arren, pobregoak garela erantzun ohi dut. Niretzako munduko aberatsena duenarekin zoriontsu dena da.

Bizi esperientzia hartatik zer dakarkizu?

Asko maite dudana familia handi bat eta lagun asko hangoak eta hemen elkarteko kideak ere. Eskerrak, hilabete hauetan ekonomikoki hemendik lagundu didaten lagun eta familiako guztiei, handik ekarritako poltsak erosi dituzten guztiei. Eta

modu berezi batean, han elkarlanean aritu ginen Idoia, Txema, Libe, Maitane, Joxe Mari, Ainhoa, Aitana, Aitor, Ainhoa, Ane, Juan Mari, Sorkun, Maitane, Maddi, Eli eta nola ez Sabini. Denetariko momentuak bizitu ditugu eta den denak izango ditut gogoan. Denekin ikasi dut zerbait eta ederra izan da zuekin konpartitzea. Mila mila esker denei! Berriz ere bueltatuko naiz seguru. Bestalde, bizitza erdigunean jarri behar dela askotan entzuten dugu. Hori guztia modu praktikoa batean ikusten duzu. Bizitza sinpletu egin behar da, hori egiten dugun unetik gauzak beste era batera egiten hasi gintezke, baina hori sistemaren kontra aritzea da.

Covid19-a, laguntza beharrean den Ugandan

Malaria, tuberkulosia eta hiesaz gain, orain Covid19ari aurre egin beharrean dira Ugandan ere. Mugak itxita, eskolak eta komertzio gehienak itxita, garraino publikoa debekatuta eta 14:00tatik aurrera mugitzeko debekuarekin, konfinamenduan dira. “Herrialde honetako osasun azpiegitura oso urria da. Hortaz, birusa hedatzen bada, jende asko hilko da”, ohartarazi du Mukwano Lagun

elkartea. Dirua eta biltegiratutako janari faltan, “birusak zeharka ere jende asko hilko du”. Giza baliabide eta material nahikorik gabe, “tuberkulosia, hiesa, malaria edo nutrizio falta pairatzen dituzten milaka gaixo artatu gabe geratuko dira”. Ugandan, jendea eguneroarekin bizi da eta egoera honek gosea ekarriko die. Jatekorik ez izatea ekarri die.

Egoera honetan ugandarrei

laguntzeko denda birtual bat sortu dute “jendeak eskuzabalatasunez emandako produktuei esker” eta, handik ekarritako ohialekin, Alaitzek berak jositako maskarilak ere topatu ditzaizkete. Salgutako produktuekin jasotako %100a “muturreko beharra duten familiak laguntzera bideratuko dugu. Dagoeneko 30 familiari arrosa, irina, babarrunak, azukrea eta xaboa eman dizkiegu”. Mezu

bidez ondoko bideotatik jar zaitzekete hartuemanetan denda birtualarekin. Erosi nahi duzuen eskatu, eta etxera bidali edo konfinamendua amaitzean jasoko duzue. Bidalketa gastuak, produktuen prezioen barne egongo dira.

■ Facebook: mukwanolagun
■ Instagram: mukwanolagun_shop

■ ES67 3035 0182 11

1820027152 Laboral Kutxa


Erraustegia covid19-ari aurre egiteko ezinbesteko azpiegituratzat jo du Foru Aldundiak

Gipuzkoako Foru Aldundiko ingurumen departamenduaren arabera, covid19ak eragindako konfinamendu garai honetan %6,7an gehitu omen da herrialdeak sortu duen hondakin kopurua. Bilketa eta tratamendu zerbitzuak normaltasun osoz biderraten ari direla adierazi du egunotan Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatuak, sektore honetan lanean dabiltzanen ahalegina eskertzearekin batera. Beharginentzat, babeserako materiala, 33.920 unitate banatu dituztela berri eman du.

Ezinbestekotzat jo ditu Asensio, osasun larrialdi egoera honi aurre egiteko hondakinak tratatzeko herrialdeak dituen tratamendu plantak, “batez ere Zubietakoak”. Erakunde ezberdinetako araudiak “bere osotasunean bete ditugu”, adierazi zuen joan den asteko agerraldian.

Tramitazio etenaldiak eragin du atzerapena

Agerraldi amaieran kazetariak telematikoki eginiko galderen artean, erraustegia guztiz martxan noiz jarriko duten izan zen foru ingurumen diputa-



Jose Ignacio Asensio foru ingurumen diputatuak onartu zuen Zubietako planta guztiz pizteko aurreikusia zuten epean atzerapena izan dela berriz. Atzerapena egun bizi dugun egoerak eragin duela dio.

ERRAUSTEGIA MARTXAN

“Aste batzuetako kontua izan daitekeela adierazi du Jose Ignacio Asensio ingurumen diputatuak”

tuari luzatu zioten galderetako bat. Asensio onartu zuen Zubietako planta guztiz pizteko aurreikusia zuten epean atze-

rapena izan dela berriz. Atzerapena egun bizi dugun egoerak eragin duela.

“Martxoa amaieran edo apirila hasieran, Ingurumen Baimen Bateratu eraginkorra izateko dokumentazio guztia aurkeztea espero genuen”, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzan. Baina, osasun larrialdi egoeragatik,

“tramitazio administratiboa etenda dago”. Horregatik adierazi zuen, bizi dugun osasun larrialdi egoera amaitzen denean, “ahalik eta lasterren dokumentazio guztia aurkeztuko dugu”. Hortik aurrera, Asensio ez zuen data zehatzik aurreratu nahi izan, baina aste batzuetako kontua izan liteke.

“Zorionez, sistema oso zuzen funtzionatzen ari da”

%80an martxan

Bitarte horretan, iaztik martxan duten “probaldi fasean” segiko du Zubietako erraustegiak. “Zorionez, sistema oso zuzen funtzionatzen ari da”, adierazi zuen Asensio. Tratamendu Mekaniko Biologikoko plantatik hondakinen %80a erraustegira erretzera bideratzen ari omen dira, gainerako %20a Bizkaia aldera garraiatzen ari dira. Zenbaki

gehiago; TMB plantan, 11.000 tona hondakin tratatzen ari dira hilero, Foru Aldundiaren esanetan. Erraustegian 220 tona eguneko, aipatu moduan, %80an funtzionatzen ari den honetan.

Erraustegia bizi dugun osasun larrialdi egoeran betetzen ari den funtzioa gorapatu zuen ingurumen diputatuak. “Hondakinak 850-1000 gradutara erraustuta birus

guztiak eta osasunerako kaltegarriak diren gainerako elementuak desagertzen dira”, adierazi zuen.

Argumentu honekin Gipuzkoak duen hondakinak kudeatzeko sistemaren egokitasuna defendatu nahi izan zuen, zabortegeak alboratzearekin batera. “Ez dira tratamendu sistema on bat, larrialdi egoera kudeatzeko”, zioen Asensio.

Industria hondakinak

Mutiloako eta Zaldibarko zabortegeak itxita, industria hondakinak nora eramaten ari diren galdetu zioten kazetariak foru ingurumen diputuari. “Normaltasun osoz heltzen dira GHK-ra, 500 tona hilero gutxi gorabehera”. Azkoitian eraikitzen ari diren planta zabortegea zenik ukatu zuen, “tratamendu planta” gisa definitu zuen.

Kutsadura handitu ahala, Covid19-a erasokorragoa

Hala ohartarazi dute Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait herritar taldeek. AEBtako Harvardeko unibertsitateak kaleraturiko txosten batek, airearen kutsadura COVID19aren hilkortasuna areagotzearekin lotu dela ohartarazi dute. Kutsadurari lotutako gaixotasunetan, koronabirusa 20 aldiz hilkorragoa izan daitekeela.

Kutsaduraren aurka, osasun alarma pizteko deia egin zuten apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren eta Chernobylgo istripu nuklearraren urtemuga egunean hain zuzen. Eta oihal beltzak jartzera, dolu keinu gisa, “kontura gaitetzen pandemia isila bezain hilgarria ari garela pairatzen: kutsadura hain zuzen”. Deitzaileek salaturiko “jarduerak airera igortzen dituzten dioxina, metal astun eta partikula fin eta partikula nanoek eragindakoa; Gueñeseko biomasa plantak, Donostiako erraustegiak, Muskizeko birfindegiak eta halaber, Zaldibar bezalako zabortegeiek”.

Hitzordua finkatu zutenak hain zuzen, Petronor eta Gueñeseko Biomasa erreketak jarduerok hurbil dituzten Zalla-Güeñes, Muskiz eta Abanto Zierbanako herritar eta elkar-teak, eta Zubietako erraustegia hurbil duten inguruotako (Usurbil, Lasarte-Oria eta Zubietako) herritarrak dira.

Gogorarazi dutenez, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, kusadurak munduan 5,5 milioi pertsona hiltzen ditu urtero, 800.000 European, 40.000 espainiar es-



Kutsaduraren aurka, osasun alarma piztu eta oihal beltzak jartzeko deia egin zuten apirilaren 26an.

SIRENA-HOTSAK

“Kutsaduraren aurka, osasun alarma pizteko deia egin zuten apirilaren 26an”

tatuan eta 2.500 inguru Euskal Herrian.

COVID19a kaltegarriagoa, kutsadurak eragindako gaixotasunetan

Ezagutzera eman dute baita, AEBtako Osasun Publikoko Harvardeko T.H Chan fakultateak apirilaren 5ean argitaraturiko txostena. COVID19-ak apirilaren 4ra arte eragindako heriotzen %90a erregistratu diren AEB-tako 3.000 konde-rietako datuak jaso dituzte. “Zehazki aztertu dituzte beren tamaina txikiagatik biriketan sakon sartzen diren partikula finen eraginak, eta haiek biriketatik gainerako organoetara banatzen dira zirkulazio sistemaren bitartez. Bihotz-biriketako gaitz kronikoak sorrarazten dituzte (Biriketako

Gaixotasun Kroniko Buxatzaila, BGKB esaterako) eta minbizia sor dezaketen alterazio genetikokoak”.

Azterlan honek “ondorioztatu du Covid19a askoz hilkorragoa dela zenbat eta kutsadura gehiago egon”. Azterlan honen egileetako baten arabera, “suspentsioko partikulekiko esposizio luzeko batez bestekoan unitate bakar bat gehitzeak, Covid19aren ondoriozko hil-kortasun tasan %15eko igoera dakar”.

Partikula hauen eta bestelako gaixotasunen artean dagoen lotura %0,7 den artean, aldiz, “PM2,5 partikulekiko esposizioaren eta Covidekiko hil-kortasunaren arteko erlazioa, berriz, 20 aldiz handiagoa da. Kutsadurak Covid19aren kasuan bereziki eragitearen arrazoa da partikula finek sortzen dituzten gaixotasunak direla hain zuzen Covid19aren kaltea asko areagotzen dutenak”. Sarritan entzuten ari garen “biriken inflamazioa eta potentzialki sistema kardiobaskularra”. Honek COVID19a ba-

tuta, osasun egoera larriagotu dezake.

Herritar taldeok egiten duten ohartarazpena argia da beraz; “zenbat eta kutsadura handiagoa, orduan eta COVID19aren hedapen handiagoa”. AEB-ekin bezala, berri eman dutenez, Carlos III. Institutua ere kutsadura COVID19aren hedapenean eragiten ari ote den aztertzen ari da AEMET meteorologia agentziarekin elkarlanean. “Azterlan eta estatistika horiek PM 2,5 partikula finetan eta txikiagoetan oinarrituta daude, eta hain justu horietxek dira biomasa plantek, erraustegiek, zabortegeiek eta erregai fosilen errektuzek igortzen dituztenak airera, deitzaileek euren herrietan salatzen duten bezala”.

Babes zabala jaso zuten apirilaren 26ko deialdiak

Besteak beste, eragileona: Azkoitiko Azkarate Garbi, Andoingo Ipar Haizea, Eguzki, EHNE, Ekologistak Martxan Bizkaia, Elkar-Ekin (Azpeitia), Ernai, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, EHBildu, EA, OEIT (Osasuna eta Erraustegia Ikerketa Taldea), Gueñes Bizia, Kima Berdea (Abanto Zierbana), Friday For Future, Goierri Bizirik, GuraSOS, Aire Garbia (Lasarte-Oria), Meatzaldea Bizirik, Podemos Euskadi, STELLAS, Trintxer Elkarte (Pasaia), Zalla Bai.

Erraustegiagatik ere alarma egoeran garela salatze sirenak hotsak pizteko deia egin ohi dute asteburuetan eguerdiko 12:00etan.

Kutsaduraren deseskalatze prozesuari ekiteko deia

Egoera honetan, administrazio publikoak egun indarrean dituen politikak birplantatzea eskatzen dute herritar taldeok. Kutsaduraren deseskalatze prozesuari ekitea.

Eta abiapuntu gisa, Zubietako erraustegia geratzea, Bizkaiko Petronorren itxiera eta desegitea eta Gueñeseko Biomasa erretzeko jarduerak etetea exijitzen dute. Horre-

kin batera, osasuna eta ingurumena lehenetsiko duen gizarte elkarriketarako bidea jorratzen hastea nahi dute, “hondakinen kudeaketa publiko eta jasangarriaren alde

egingo duena erabakimenez, eta era berean trantsizio energetikoaren alde, interes ekonomiko pribatuen aurretik. Osasuna lehen tokian jartzeko ordua da”.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahiz izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa:

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Gela bat alokatzen da Usurbilgo erdigunean. Giza-seme euskaldun eta adinekoa 687348223

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure dela horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua.

651 197 381 / 632 138 393

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekaxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaz-

tea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburueterako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta asegurueterako kudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen arida. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezua bat: gorputzaldia@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi

osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zainitzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburueterako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona hel-



Zorionak Markel!

Maiatzaren 2an 10 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxekoan partez!



Zorionak Arhane eta Gabrielle!

Maiatzaren 6an 6 urte beteko dituzue. Zorionak familia guztiaren partez, muxuak!



Zorionak hirukote!

Apirilean, 12 eta 9 urte bete dituzuelako. Muxuak etxekoan partez.



Zorionak Ani!

Badakigu Ani zuretzako dela, egun pozgarria, benetan handia... beraz, ZORIONAK zuri, apirilaren 29an!! Muxu handi bat gu guztion partez!!

duak zaintzen, arratsaldetan edo gauetan. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauetan. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Segituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia handia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzateke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, dei-

tu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa lanetarako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan lan

egingo nuke. Tel. 617 748 714.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Umeak arratsaldez zaintzeko prest. Maria 672340330

Pertsona heldu edo dependienteak zaindu edota etxeko garbiketa lanak egiteko prest. Soziosanitario titulua dut eta esperientziaduna. 686 825 587.

Ordukako lan baten bila nabil

arratsaldeetarako, garbiketa eta haur edo helduen zaintza lanak egiteko. Berehala hasteko. Erreferentziarik. Esperientzia. 688774180.

BESTELAKOAK

Isabelita Mandarinara Japoniarra (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide berriak sartzeko plaza libreak daude. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Iñigo.

Ohe artikulatua salgai. 1'35 neurrikoa da eta berri berria dago. 650 027 123.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburua... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	.943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	.943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	.900 776 776	Taxia (Angel).....	.607 928 770
Udaltzaingoa.....	.943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	.677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	.943 370 148	Eusko Tren.....	.943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	.697 919 516	LurraldeBus.....	.943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	.943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	.943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	.943 361 215	Anbulategia.....	.943 362 013
Bake Epaitategia.....	.943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	.943 376 076
Udarregi Ikastola.....	.943 361 216	Iturralde botika.....	.943 363 395
Haur Eskola.....	.943 374 061	DYA.....	.943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	.943 364 600	Gurutze Gorria.....	.943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	.943 372 077	Emergentziak.....	.112
Hastapen tailerrak.....	.943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	.900 840 111 / 016
KZgunea.....	.943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	.943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	.943 372 498	Kutxabank.....	.943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	.943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	.943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	.943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	.943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	.607 609 379	Banco Popular Español.....	.943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	.943 365 249	BBVA.....	.943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	.943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	.943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	.943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	.901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	.692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	.902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	.943 361 239	Telefonica.....	.1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	.943 360 321	Euskaltel.....	.900 840 840

Heriotzak

Paulina Urreta

Otegi

Apirilaren 21ean hil zen, 91 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 30 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 01 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 02 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 03 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 04 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 05 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 06 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte

Apirilak 30 - Maiatzak 10

Osteguna 07 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 08 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 09 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

01 ostirala

- **Lide eta Nora 'Sortuz, bakardadea isolatuz' zikloan.** 19:00etan, *Usurbilgo artixtak* Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.
- **Udajolaseko izen-ematearen irekiera.** Xehetasunak, orrialde honetako albiste nagusian.

02 larunbata

- **Erraustegiaren aurkako sirena-hotsa** 12:00etan.
- **Katta eta Manex 'Sortuz, bakardadea isolatuz' zikloan.** 19:00etan, *Usurbilgo artixtak* Facebook orrialdean edota @sortuzbakardadeaisolatuz Instagram kontuan.

03 igandea

- **Erraustegiaren aurkako sirena-hotsa** 12:00etan.

Udajolas 2020: izen-ematea maiatzaren 1ean zabalduko da

Beste hainbat udalerrietan bezala, udako txokoak antolatzen hasi gara Usurbilen ere. Baldintzak beteko balira, Udajolas izango dugu aurtengo uztailean. Izen-ematea maiatzeko lehen hamabostaldian bideratuko dugu; hori bai, aurtun ezinbestean, Internet bidez. Udajolas egiterik ez balego, ordaindutako kuotaren %100a itzuliko da.

Izen-ematea, soilik Internet bidez

Helbide honetatik egin behar da inskripzioa: noaua.eus/bereziak/udajolas

- Epea: maiatzaren 1etik 15era (bi egunok barne).
- Adina: 4-12 urte arteko haur eta gazteei zuzendua. 2019-20 ikasturtean HH 3-LH6 maila artean ikasten aritu direnentzat.
- Plaza kopurua: Gehienez 200 laguntzako lekua izango da.
- Ordainketak Laboral Kutxako kontu zenbaki honetatik bideratu beharko dira, maiatzaren 1etik 15era, haurraren izen abizenak adierazita: ES28 3035 0140 34 1400025811 (Usurbilgo Udaleko kontua)
- Izena ematerakoan erantsi beharrezko dokumentuak:
 - Ordainketa agiria.
 - Gizarte Segurantzako txartelaren kopia edo argazkia.
 - Familia ugarien kasuan, Familia Ugarien



Izen-ematea orain zabalduko da. Uztailean ezingo balitz egin, ordaindutako kuotaren %100a itzuliko da.

txartela edo Familia Liburuaren kopia.

- Kuota 85 euro, familia ugarientzako prezioa 69 euro.
- Oharrak:
 - Maiatzak 15, izen emateko azken eguna. Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko.
 - Informazio gehiago elkarte@noaua.eus helbidean edo 688 807 336 telefonoan.
 - Guraso-bilera egiterik badago, ekainaren 15an (astelehena) izango da Sutegiko auditorioan, arratsaldeko 17:00etan.
 - Izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, dirua %100 itzuliko da.

Udajolas, uztailean

- Uztailearen 6tik uztailearen 30era.
- Orduetgia: 9:30-13:30 artean, astelehenetik ostiralera.

Kontuan hartzekoak

“Sortuz bakardadea isolatuz” zikloak ez du etenik

Usurbilgo Artixtak taldeak ekitaldi gehiago iragarri ditu aste honetarako. Saio denak 19:00etatik aurrera eskainiko dituzte taldearen sare sozialetan.

Apirilak 27 astelehena

Romero aita-emeak.

Apirilak 28 asteartea

Tapunturen ikastaroa.

Apirilak 29 asteazkena

Itoitz Rodriguezen emanaldia.

Apirilak 30 osteguna

Jon Imanol Etxaberen hitzaldia.

Maiatzak 1 ostirala

Lide eta Noraren zuzenekoak.

Maiatzak 2 larunbata

Katta eta Manexen zuzenekoak.

Sare sozialetan ikusgai

■ Facebook:
Usurbilgo artixtak orrialdean.

■ Instagram:

@sortuzbakardadeaisolatuz helbidean.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Urartz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
urartz@urartz.com USURBIL

#Etxealditik
EUSKARALDIRA
Usurbilen

Apirilaren 20tik maiatzaren 3ra



Eman kolorea puntuari eta jarri leiho edo balkoian.

noqua



Jarraitu

www.usurbil.euskaraldia.eus

EUSKARALDIA



/EuskaraldiaUsur



@euskaraldiausurbil



@EuskaraldiaUsur



@belarriprest/@ahobizi

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas

2020

udaleku irekiak

IZEN-EMATEA ONLINE EGIN BEHAR DA

Udajolas Usurbilen erroldatutako 4-12 (HH3-LH6) urte bitarteko haur eta gazte-txoei zuzendua dago. Uztailaren 6an hasi eta 30ean amaituko da, eta ordutegi hau izango du: 09:30-13:30

Gehienezko plaza-kopurua 200 umekoa izango da.

Ordainketa LABORAL KUTXAKo kontu honetan egin behar da, eta garrantzitsua da **HAURRAREN IZEN-ABIZENAK** adieraztea:

ES28 3035 0140 34 1400025811
(Usurbilgo Udaleko kontua)

Izena emateko epea:

maiatzaren 1etik 15era (biak barne)

Kuota: 85€

Familia ugaria: 69€ (Familia Ugariaren Txartela edo Familia Liburuaren kopia bidali behar da).

Izen-ematea egiteko lotura:

www.noaua.eus/bereziak/udajolas

Aurkeztu beharrekoa:

(erantsi inprimakia betetzean)

- Ordainketa-agiria
- Gizarte Segurantzako txartelaren kopia
- Familia Ugariaren txartela edo Familia Liburuaren kopia

*Udajolaseko guraso-bilera ekainaren 15ean (astelehena) izango da Sutegiko auditorioan, arratsaldeko 17:00etan.

*Ahal bada eta egoerak uzten duen neurrian

OHARRA: Informazio gehiago elkartea@noaua.eus helbidean edo 688807336 telefonoan.

Izen-ematea egin ondoren udalekuak ezin badira egin, diruaren %100 itzuliko da.

noaua

